4-2 irudian ikusten den bezala, suposatzen da inurrien erdiak A bidea hartuko duela eta beste erdiak B bidea.




4-2 Inurrien kolonia bideak esploratzen [ABARRATEGI - 2012]

Inurriak abiadura konstantean mugitzen dira, hau da, denbora-tarte berean inurri gehiagok egiten duten bidea bide laburrenean zehar B. Horrela feromona gehiago pilatzen dira B ibilbidean, 4-3 irudian ikus daitekeen moduan.



4-3 Inurrien kolonia bide laburrenetik doa [ABARRATEGI - 2012]

Denbora jakin baten ondoren, ia inurriek B bideari ekiten diote, denbora gutxiagotan elikagai-iturrira iritsiz, 4-4 irudian erakusten den moduan.



4-4 Inurriek azkenean bide laburren aurkiketa egiten dute [ABARRATEGI - 2012]

Beraz, inurri koloniek prozesu autokatalitiko bat jarraitzen dute, gertuko jakien iturria aurkitzeko arazoa optimizatzen. Jokabide honek hurrengo puntu hauetan deskribatutako metodoak eta algoritmoak inspiratu zituen.

Inurri kolonien optimizazio prozesuan oinarritutako algoritmoak potentzia sistemen optimizazio arazoak konpontzeko erabiliak izan dira.


4.1 INURRI KOLONIETAN OINARRITUTAKO ALGORITMOAK

Algoritmo hauek lankidetzan eta informazio trukaketan oinarritzen diren inurri artifizialen multzo batek osatzen dituzte. Inurri artifizial bakoitzak bere bide artifiziala aurkitzen du eta feromona gainean jarrita aldatzen du, optimizazio arazo bat konpontzeko. Optimizazio arazo bakoitza honako terminoetan defini daiteke [Dorigo - 1999]:

- Soluzio osagaien multzo fin bat: $M = \{m_1, m_2, \dots, m_n\}$.
- Elementuen arteko konexio posibleen multzo finitua: $B = \{b_{i,j}, (m_i, m_j) \in M\}$.
- M eta B elementuen mugen multzo fin bat: $X = X(M, B)$.
- Arazoaren multzo fin bat (k), sekuentzia posible guztiei dagokiena.
- Mugak errespetatuz egingarriak diren estatu guztien multzoak K, X .
- Konponbidea izateko hautagaien multzoa $S \in K$.
- $C_{i,j}$, $b_{i,j}$ -rekin bateratua dagoen kostu konexioa da.
- $C_S(B)$ S soluzioari lotutako kostua da.
- Konexio bakoitza $\tau_{i,j}$ feromona balio baten bidez kuantifikatua dago.

Arazoaren ezaugarriak zehaztu ondoren, algoritmo generikoak urrats hauek jarraitzen ditu:

- Eraikuntza-grafikoa sortu Bilaketa Espazioa ala Search Space deiturikoa, eta bertan B guztiak eta M ordezkaturik daude, X irudian ikusten den bezala.
- Bide bakoitzari lotutako feromona mailak abiarazi.
- Definitu kolonia osatzen duten inurri artifizialen kopurua.
- Iterazioaren amaierako irizpideak ezarri, aurrez zehaztutako zenbait zikloren ostean edo konputazio denbora jakin baten ondoren.
- Iterazioa amaituko da inurriek bere bide artifiziala osatzen dutenean.



4-5 Search Space [ABARRATEGI - 2012]

Inurri koloniaren algoritmoaren ziklo bakoitzerako inurria artifizial ugari sortzen dira. Inurri bakoitzak pausoz pauso eraikitzen du bere bidea. Urrats bakoitzean inurriak hurrengo erpinera joan behar du, "estatu trantsizio araua" aplikatuz aukeratu dena. Estatu trantsizio arau hau (algoritmo desberdinentzako desberdinak izan daitezke) inurriak bide errentagarrietik gidatzeko erabiltzen da. Hurrengo erpinera pasa ondoren, tokiko feromona eguneratzeko araua aplikatzen da, orokorrean "eguneratze lokal araua" edo tokiko araua bezala ezagutzen dena. Inurriek konponbidea osatu dutenean, feromonaren ibilbideak berriro eguneratzen dira "eguneratzeko arau orokorra" deiturikoarekin. Bi arau hauek lurruntze faktorea aplikatzen dute, hori dela eta feromona metaketa eta feromona indartzea nodoetan ez dira mugagabeak, beraz, gehien erabiltzen diren ertzak berriro aukeratzeko aukera izateko. Zikloa inurri guztiak amaierako helmugara, bazka eremura edo elikagaien iturrira iritsi direnean amaitzen da, eta horrela, aukeratutako bidea osatuko da. Zikloak zenbaki jakin bat lortu arte errepikatzen dira (arazoaren tamainaren eta exekuzio denboraren baldintzen arabera) edo ziklo kopuru zehatz baten ondoren irtenbide bera sortzen denean.

4.2 INURRI KOLONIEN ALGORITMOAREN EZAUGARRIAK

Algoritmo hauek sistema baten osagaiak ahalik eta gehien errazten saiatzen dira, sistema horren funtsezko informazioa behatzeko. Orokorrean arau oso sinpleen arabera lan egiten duten eragile talde bat aurkezten dute. Hala ere, talde hau lankidetzan aritzen denean, sistema garrantzitsu eta askoz zailagoa sortzen da. Inurriek paraleloan eta modu dinamikoan lan egiteak, koloniari zuzenketak egin eta informazio anbiguoak eta desitxuratuak ekiditea ahalbidetzen du adimen kolektiboaren ondorioz. Adimen hau sistemari elementu askoren (inurri artifizialak) elkarrekintzaren bidez ematen zaio. Inurri kolonien algoritmo baten ezaugarri nagusiak honako hauek dira [Dorigo - 1997]:

- Errefortzua: Feedback positiboaz ere ezagutzen da. Inurri koloniek erabiltzen duten zeharkako komunikazio modua, feromona, informazioa partekatze

erabiltzen da. Koloniarako informazio baliagarri globala da. Batzuetan lortutako informazioak akatsak izan ahal ditu, beste batzuetan, berriz, irtenbide hobeak ekarriko ditu. Horrela, feromona indartzea egokitasun handiagoa erakusten duten moduetan aplikatuko da, inurrien arteko komunikaziorako. Bideetan erpina aukeratzeko ziurgabetasuna murriztu egingo da. Inurrien kolektiboak portaera autokatalitikoak erakutsiko du: inurriek nolabaiteko bidea jarraitzen duten heinean, bide hori erakargarriagoa bihurtzen da, erantzun positiboaren ondorioz.

- Stigmergy: Eragileen edo ekintzen arteko zeharkako koordinazio mekanismoa da. Substantzia usaingarrien barreiatzailearen eremu bat sortzean eta kokapenetan oinarritzen da. Horrelako estigmek ingurunea beste inurriengatik aldatzen dute eta haien portaeran eragina dute.

Koordinazio estigmergikoak (SC) ingurune aktibo batek bitartekatutako eragileen arteko elkarrekintza eta informazio trukaketa asinkronikoen forma deskribatzen du. Printzipioa zera da: ekintza batek ingurunean utzitako arrastoak hurrengo ekintza baten errendimendua suspertzen duela, eragile berean edo beste batean. Horrela, ondorengo ekintzek elkarren artean indartu eta eraikitze joera dute, jarduera koherentea, itxuraz sistematikoa, berehala sor dadin. Auto-organizazio modu bat da. Egitura konplexuak eta itxura adimentsuak ekoizten ditu, eragileen arteko planifikazio, kontrol edo komunikazio zuzenaren beharrik gabe. Eragileak sinpleak eta erreaktiboak izateaz gain, ez dakite beste eragileei edo agentei buruz ezta hauek jarduera konplexuak sortzen ari diren ala ez. Ingurunea mekanismo garrantzitsua da eragile horien jarduerak gidatzeko eta eragileen gizarte osoaren etengabeko jarduerari buruzko informazioa pilatzeko.

- Geldialdia: Horrelako algoritmoen arazoetako bat, arrakasta lortzen duten indartze estrategiari zor zaie. Feromona indartzeak inurriak arrakastaz aukeratzeko bidea feromonaz aberatsa izango dela suposatzen du eta beste inurriak erakartzen dituela esan nahi du. Bestela, inurri artifizial hauek, esploratu gabeko bide berri bat jarraituko dute egokitasun hobe bat duena eta bide berriak ireki ahal izango dituzte. Horrela, bide jakin bateko feromona kopurua hazi egingo da eta laster inurriek bidea jarraituko dute, eta ez dituzte beste aukera batzuk esploratzen. Jokabide horrek geldiaraztea eragin dezake, bide posibleak nahikoa ez direnean eta bide jakin batek aurrea azkarregi hartzen badu. Geldialdia inurri kolonien algoritmoen arazo nagusietako bat da. Hori ekiditeko, feedback negatiboak edo feromona lurruntzeko faktoreak aplikatzen dira. Horrela, iterazioaren eta ziklo bakoitzaren ondoren feromona orokorra ratio jakin batera lurruntzen da. Honek geldialdiak ekarriko lukeen feromona metaketa azkarra eragozten du.
- Greedy Search: Bide bakoitza informazio kopuru batekin lotua dago, feromona pista maila eta informazio heuristikorekin. Bidearen urrats bakoitza erabaki probabilistikoa eta eraikitzaile bati dagokio. Soluzioen egokitasuna ziklo bakoitzarekin hobetzen doan heinean, bideari lotutako informazioa hobeagoa eta fidagarriagoa bihurtzen da. Funtzio objektiboak bilaketa gidatzen du ezagutza laguntzailerik gabe, eta horrela, bilaketaren konplexutasuna murrizten du.

4.3 OBJEKTUEI ORIENTATUTAKO INURRIEN KOLONIEN OPTIMIZAZIO METODOA

[Abarrategi-2012] metodo hau proposatu zuen lineen galerak minimizatu eta BEBen presentzia sarean maximizatzeko, sareko birkonfigurazioa erabiliz, sare elektriko erradialean. Metodoa Objektuei Orientatutako Inurrien Kolonien Optimizazioa (OIKO) deitzen da, Lehendabizi, hornidura puntuak lotzen dituzten etengailuz osatutako taldeak osatzen ditu. Etengailu talde hauek Bilaketa Espazioa osatzen dute. Talde bakoitzeko etengailu bat hautatu behar da, irekitzeko eta sarearen konfigurazio erradiala lortzeko. Etengailu egokiak aukeratu ezker galera elektrikoak sarean minimiza daitezke eta beraz, BEBen presentzia maximizatu.

Ireki behar den etengailu konbinazio optimoa topatzeko Inurri Kolonien Optimizazioa erabiltzen da.

Galeren kalkula (4.1) ekuazioan zehazten da

$$P_{losses} = Re\{V_i \cdot I_{ij}^* + V_j \cdot I_{ji}^*\} \quad (4.1)$$

Non I_{ij} eta I_{ji} korrontearen intentsitateak (4.2) eta (4.3) ekuazioen bidez deskribatzen diren

$$I_{ij} = y_{ij} \cdot (V_i - V_j) + y_{i0} \cdot V_i \quad (4.2)$$

$$I_{ji} = y_{ij} \cdot (V_j - V_i) + y_{i0} \cdot V_j \quad (4.3)$$

Non y_{ij} eta y_{i0} lineen admitantziak diren eta V_j eta V_i busen tentsioak diren.

Operazioa ziurra izan dadin, murrizketa baldintza batzuk bete behar dira, (4.4) ekuazioan ikus daitekeen bezala. Tentsioa ezin ditu muga jakin batzuk gainditu. Muga hauek EN50160 eta IEEE C84.1 estandarretan zehaztuta daude. Espainiar estatuan muga %7a balio nominalaren inguruko da muga eta Iberdrola konpainiak %5eko mugak ditu bere banaketa sareetan.

$$V_{min} \leq |V_i| \leq V_{max} \quad (4.4)$$

Korrontearen intentsitateak ezin du lineako eroalearen limite termikoa gainditu, (4.5) ekuazioan ikus daitekeen bezala (4.5).

$$|I_i| \leq I_{i,max} \quad (4.5)$$

Hortaz gain sareak ezin du uharterik izan, hau da, elikadura hornitzaile nagusietatik banatuta funtzionatzen duen zonalderik.

Funtzio objektiboa (4.6) galeren minimizazio funtzioa da, murrizketak penalizazio faktoreekin islatzen direlarik:

$$\min F = \min(P_{losses} + \lambda_v C_v + \lambda_i C_i + \lambda_{LM} C_{LM}) \quad (4.6)$$

Non:

- P_{losses} sistemaren galera elektrikoak
- λ_V tentsio mailaren murrizketa hausteen penalizazio konstantea
- C_V tentsioen murrizketa hausteen zenbakiaren karratua
- λ_i korrontearen intentsitate mailaren murrizketa hausteen penalizazio konstantea
- C_i korrontearen intentsitateen murrizketa hausteen zenbakiaren karratua
- λ_{LM} uharte sorkuntzaren penalizazio konstantea
- C_{LM} sortutako uharteen zenbakiaren karratua

Lehendabizi, Bilaketa Espazio osatzen duten etengailu guztiei τ_0 feromona maila ematen zaie. Ondoren, 'm' inurri ausaz sakabanatzen dira Bilaketa Espaziotik eta bilaketa hasten da. Inurri bakoitzak Estatu Trantsizio Arauari jarraituz aukeratzen du soluzioaren parte izango den hurrengo etengailua. Estatu Trantsizio Araua (4.7) ekuazioan ikus daiteke.

$$P_i = \begin{cases} \frac{[\tau(t)]^\alpha [\eta(k,t)]^\beta}{\sum_{j \in loop} [\tau(t)]^\alpha [\eta(k,t)]^\beta} & \text{if } j \in loop \\ 0 & \text{otherwise} \end{cases} \quad (4.7)$$

Non:

K	k inurria
t	k inurriak hartzen duen urratsa
τ	objektu jakin batean (etengailuan) bildutako feromona
η	objektuarekin (etengailua) lotutako egokitasuna
α	feromonaren neurri faktorea
β	egokitasunaren neurri faktorea

Bilaketa bukatu ostean soluzio onena lortu duen inurriaren soluzio, momentu-arte iterazio guztietan zehar lortu den soluzio onenarekin konparatzen da. Hobe bada soluzio global hobe eguneratzen da eta feromona mailak eguneratzen dira etengailu guztietan. Horrela, erabili ez diren etengailuetan feromona 'lurruntzen' da eta erabili direnetan indartzen da, Eguneratzeko Arau Orokorra jarraituz. Eguneratzeko Arau Orokorra (4.8) eta (4.9) ekuazioen bidez definitzen da.

$$\tau_i = (1 - \delta)\tau_i + \delta\Delta\tau_i \quad (4.8)$$

$$\Delta\tau_i = \frac{Q}{\eta_{best}} \quad (4.9)$$


Non:

τ_i	objektuan bildutako feromona
δ	feromonaren lurruntze koefizientea
Q	egokitasunaren arabera aukeratutako parametro esperimentalak
η	soluzioaren egokitasuna

5 PARAMETRIZAZIOAREN INGURUKO SAIAKERAK

Atal honetan, parametrizazioak optimizazioan duen garrantzia erakustea izango da helburua. Parametrizazioak, hau da, helburu funtzioa baldintzatzen duten parametroen balioen aldaketak, ondorio zuzenak ditu soluzio egokien eraikuntzan eta beraz algoritmoa eta metodologiaren funtzionamendu egokian. Hala nola, algoritmo oso on batek emaitza txarrak eman ditzake txarto parametrizatuta badago. Ordea, parametrizazio egokiarekin, algoritmoaren eraginkortasuna hobeto daiteke. Parametrizazio egokia algoritmoaren araberakoa da eta esperimentera lortu behar da. Atal honetan, parametrizazio egoki hori esperimentera bilatzeko ahalegina egin da.

Ibilbide optimo hori lortzeko [Abarrategi-2012] lanean proposatu zen algoritmoa erabiliko da. Lan honetan Sarearen Birkonfigurazioa erabiltzen da galerak minimizatu eta BEBen kopurua sarean maximizatu ahal izateko. Horretarako, Objektuetara Orientatutako Inurri Kolonien Optimizazio metodoa (Item Oriented Ant Colony Optimization IOACO) proposatzen du eta sare elektriko ezberdinetan frogatzen du. Lan honetan, Objektuetara Orientatutako Inurri Kolonien Optimizazio algoritmoan parametrizazioak duen garrantzia frogatu da esperimentera. Algoritmoa garatzeko Python 3.6 programazio hizkuntza erabili da. Python kode irekiko, maila altuko eta helburu orokorreko programazio hizkuntza da.



5-1 Sare elektrikoak

Bestalde, algoritmoaren parametrizazio testak, dagoeneko lan ezberdinetan erabili izan den sare elektriko batean egin dira. Sare hau hiru hornidura linea nagusi ditu, 5-1 irudian ikus daitekeen bezala, sarritan erabilia izan da literaturan [Civanlar-1988][Carpaneto-2004][Su-2005][Wu-2010][Abarrategi-2012].

Sarearen tentsio maila 11,4kV-takoa da, daukan karga osoaren potentzia aktiboaren (P) kontsumoa 28,7MW-tako da eta potentzia errektiboarena (Q) 17,3MVar. Sarean dauden kapazitore bankuek ematen duten potentzia errektibo gaitasuna 11,4MVar-takoa da. Hasierako sarearen konfigurazio, operazio baldintza normaletan daukana da. Konfigurazio honekin, sare honek dituen galerak 0,514MW-takoak dira. I eranskinean sareko ereduaren informazio zehaztuagoa ematen da. Sarearen modelo PSS/E33 programan egin da eta programa bera erabili da algoritmoak eskatzen dituen

kalkulu elektrikoak egiteko motore bezala. PSS/E (Power System Simulation for Engineering), Siemensek garatutako software erraminta da, sare elektrikoak modelatu eta hauetan simulazioak eta kalkulu konplexuak egiteko oso erabilgarria da.

Idea nagusia saiakera batzuk egitea izango da aurretik azaldu diren parametroak aldatuz. Parametro ugari daude eta ikerketa honetan adierazgarrienak erabiliko dira. Aztertuko diren parametroak hurrengoak dira:

- Inurri zenbakia: zenbat inurrik hartuko duten parte soluzio bakoitzaren eraikuntzan
- Ziklo edo iterazio zenbakia: Zenbat aldiz errepikatuko den bilaketa
- λ_V , λ_i , $\lambda_{\text{islanding}}$ penalizazio konstanteak: sare elektriko parametroak izan behar duten balio tartetik ateratzen duten soluzioek izango duten penalizazioa. Tentsio mailak mantentzen ez diren kasuetan λ_V aplikatuko da. Intentsitateak altuegiak badira λ_i aplikatuko da eta sareko zatiren bat uharte moduan funtzionatu ezkeren $\lambda_{\text{islanding}}$ aplikatuko da.
- α feromonaren neurri faktorea: feromona, hau da, inurriek daukaten esperientzia ponderatzeko erabiltzen den konstante da. Alfaren balio handiak feromonaren garrantzia soluzio bilaketan ahalmentzen dute.
- β heuristikaren neurri faktorea: heuristika edo soluzioaren egokitasuna (fitness), soluzio jakin horren eraginkortasuna neurtzen du. Betaren balio handiek berez onak diren soluzioak (esplorazioa) indartzen ditu bilaketa prozesuan
- δ feromonaren ebaporazio tasa: Bilaketa bukatzen denean etengailu guztien feromona maila Global Transition Rule bidez aktualizatzen da. Honetan garrantzitsua da delta, feromonaren ebaporazio eta akumulazio tasa finkatzeko. Feromona desagertzen doa etengailuetatik denbora pasa ahala. Arin edo astiro desagertzen den finkatzeko, deltaren balio ezberdinak erabiltzen dira
- τ_0 hasierako feromona maila etengailuetan: Bilaketa prozesua hasi aurretik etengailu guztiek daukaten feromona maila.
- Q feromonaren akumulazio abiadura finkatzen duen konstantea

Osora 59 saiakera egin dira, eta saiakera bakoitzeko lor eta aurkeztuko diren datuak hurrengoak dira:

- Lortutako konfigurazio optimoa: kasu honetan konfigurazio hori sistema erradialki operatzeko ireki diren 3 etengailuen zenbakiez osatuta egongo da.
- Lortutako konfigurazioari dagozkion galerak MW-tan adierazita.
- Sareko etengailu bakoitzean emandako feromona akumulazioa iterazioko.
- Iterazio bakoitzeko soluzioak eta soluzio globala.

Feromonaren akumulazio eta iterazio bakoitzaren soluzioa tauletan aurkeztuko dira eta dagokion informazio numerikoa eranskinean emango da.

Saiakera asko egin dira eta lana antolatzeke, patroiz edo lan-plangintza bat ezarri da atal honen hasieran.

Lan plangintza hau sinplea da, saiakerak azpimultzotan sailkatuko dira, azpimultzoko bakoitzeko saiakerak parametro amankomunak izanik. Behin saiakeren emaitzak lortuz, ondorioak azpimultzoka aterako dira eta azkenik azpimultzoen ondorioak konparatuko dira, ondorio orokorrak lortuz. Beheko taulan garrantzitsua da aipatzea azpimultzoen ondorioak atera ahala beharrezkoa ikusi dela saiakera berriak egitea ondorio zehatzagoak lortzeko.

Ibilbide optimoen eta galera optimoen erreferentziak [Abarrategi-2012] eta [Su-2005] lanetan lortutako emaitzak izango dira, gai hau jorratu duten egile denetatik emaitza fidagarri eta onenak lortu dituztenak direlako.

Lehen pausua saiakera denak taula batean islatzea izango da, azpimultzotan banatuta. Behin saiakerak azpimultzotan sailkatuta daudela, azpimultzoko bakoitzeko emaitzak azaldu eta aztertuko dira. Azkenik ondorio orokorrak lortuko dira.

5-1 Saiakeren Indize Taula

AZPIMULTZOA	SAIAKERA	IBILBIDEA
1	1	[26,19,17]
	2	[26,19,17]
	3	[19,17,26]
	4	[26,19,17]
	5	[19,17,26]
	6	[26,19,17]
	7	[26,19,17]
2	8	[19,17,26]
	9	[26,19,21]
	10	[26,19,17]
	11	[19,17,26]
	12	[26,19,17]
	13	[26,19,17]
	14	[26,19,17]
	15	[19,17,26]
	16	[26,19,17]
3	17	[26,19,21]
	18	[19,24,14]
	19	[19,17,26]
	20	[26,19,17]
	21	[26,19,17]
	22	[26,19,17]
	23	[26,19,17]
	24	[26,19,17]
	25	[19,17,26]
	26	[29,21,26]

4	27	[26,19,21]
	28	[26,19,17]
	29	[19,21,16]
	30	[16,19,27]
	31	[26,19,17]
	32	[19,24,26]
	33	[26,19,21]
	34	[26,19,17]
5	35	[26,19,17]
	36	[19,19,17]
	37	[26,19,17]
	38	[19,17,26]
	39	[26,19,17]
	40	[26,19,21]
6	41	[26,19,17]
	42	[19,21,26]
	43	[14,19,17]
	44	[26,19,17]
	45	[11,16,22]
	46	[26,19,21]
	47	[26,19,17]
	48	[26,19,21]
	49	[19,17,26]
	50	[26,15,17]
7	51	[19,17,26]
	52	[26,19,21]
	53	[26,19,17]
	54	[26,19,17]
	55	[26,19,17]
	56	[26,19,17]
	57	[19,17,14]
	58	[19,21,26]
	59	[26,19,17]

Aurretik aipatu denez [Su-2005] eta [Abarrategi-2012] hartuko da erreferentziatzen hurrengo taulan berak lortutako parametroak ikusi daitezke, batetik sareak daukan ohiko konfigurazioa eta honi dagozkion galerak eta bestetik sare honetan lor daitezkeen konfigurazio optimoa eta honi dagozkion galerak. Lan honetan saiakera bakoitzeko lortutako konfigurazio eta dagozkion galerak ohiko konfiguraziokoekin konparatuko ditugu, lortzen den hobekuntza portzentuala ebaluatzeko:

5-2 Ohiko konfigurazio vs. konfigurazio optimoa

	Ohiko Konfigurazioa	Konfigurazio Optimoa
	[Su-2005]	[Abarrategi-2012]
Konfigurazio topologikoa	[15,21,26]	[19,17,26]
Galerak (MW)	0,51402	0,4683

Erreferentziatzen hartuko diren emaitzak egile hauek lortu zituzten emaitz optimoenak dira, saiakera hauen helburua emaitza hauek oinarritzen hartuz parametroak aldatzea izango da eta aldaketa hauen ondorioz eman daitezkeen konfigurazio eta galeren aldaketak zehaztea. Behin parametro aldaketen ondorioz lortutako emaitzak lortuz, konparaketa baten ondorioz konfigurazio topologikoan eta galeretan eragin gehien duen parametroa lortzea izango da helburua.

5.1 1.AZPIMULTZOA


Saiakera hauetan λ -ren parametroak aldatu dira emaitza ezberdinak lortzeko, beste parametro denentzako balio estandarrak erabiliz.

Hurrengo orrialdeetan saiakeren emaitzak ikusiko dira, alde batetik konfigurazio topologikoa eta galeren gutxipen portzentuala eta beste batetik feromonen akumulazioa erakusten duen grafika saiakera bakoitzeko.

1.Saiakera:

5-3 1.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{\text{islanding}}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
1	3	30	0,05	0,05	0,05	1	5	0,02	0,5	1	[26,19,17]



5-2 1.Saiakeraren Grafikoa

5-4 1.Saiakeraren Emaitzak


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	1.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4682
Galeren gutxipena(%)	-	8,9%

Saiakera honetan ikusi daiteke konfigurazio topologikoa optimoa dela eta galerak kasu honetan gutxitu egiten dira. Adierazgarria da ere 12. busean feromonen akumulazioa handiagoa dela. Bilaketa prozesua nahiko egokia da eta esplorazioa eta esplotazioa nahiko orekatuta daude.

2.Saiakera:

5-5 2.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{\text{islanding}}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
2	3	30	0,5	0,5	0,5	1	5	0,02	0,5	1	[26,19,17]



5-3 2.Saiakeraren Grafikoa

5-6 2.Saiakeraren emaitzak


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	2.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4682
Galeren gutxipena(%)	-	%8,9

Saiakera honetan konfigurazio topologikoa optimoa den arren, feromonaren akumulazioa oso homogeneoa da eta horrek esan nahi du bilaketa prozesua ez dela oso egokia.

3.Saiakera:

5-7 3.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{islanding}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
3	3	30	1	1	1	1	5	0,02	0,5	1	[19,17,26]



5-4 3.Saiakeraren Grafikoa

5-8 3.Saiakeraren Emaitzak


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	3.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4682
Galeren gutxipena(%)	-	%8,9

Saiakera honetan konfigurazio topologikoa berdina da eta galerak gutxitzea lortzen da, baina grafikoan ikusten da feromonen akumulazioa 13. eta 25. busetan adierazgarria dela. Bilaketa prozesua ez da egokia.

4.Saiakera:

5-9 4.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{\text{islanding}}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
4	3	30	5	5	5	1	5	0,02	0,5	1	[26,19,17]



5-5 4.Saiakeraren Grafikoa

5-10 4.Saiakeraren Emaitzak


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	4.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4682
Galeren gutxipena(%)	-	%8,9

Saiakera honetan konfigurazio topologikoa optimoa da. Feromonak 14 , 13 eta ehuneko txikiago batean 15.feromonan akumulatzen dira. Bilaketa prozesua ez da egokia.

5.Saiakera:

5-11 5.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{\text{islanding}}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
5	3	30	10	10	10	1	5	0,02	0,5	1	[19,17,26]



5-6 5.Saiakeraren Grafikoa

5-12 5.Saiakeraren Emaitzak


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	5.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4682
Galeren gutxipena(%)	-	%8,9

Saiakera honetan konfigurazio topologikoa optimoa da eta galerak txikitu egiten dira. Ikusi daiteke feromonak 25 eta 17.busetan akumulatzen direla. Feromona akumulazioa oso erratikoa da azken iterazioetan, eta hau penalizazio faktore handiegien ondorio zuzena da. Nahiz eta emaitza optimoa lortu izan, oso soluzio bilaketa prozesu kaskarra ikus daiteke.

6.Saiakera:

5-13 6.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{\text{islanding}}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
6	3	30	7	1	4	1	5	0,02	0,5	1	[26,19,17]



5-7 6.Saiakeraren Grafikoa

5-14 6.Saiakeraren Eraitza


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	6.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4682
Galeren gutxipena(%)	-	%8,9

Konfigurazio topologikoa optimoa da. Grafikoan ikusten denez feromonak bi taldetan banatzen dira busetan zehar. Feromona akumulazioak prozesua gidatzen du, hori dela eta grafikoa oso homogeneoa da eta bilaketa prozesua ez da ona.

7.Saiakera:

5-15 7.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{\text{islanding}}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
7	3	30	50	50	50	1	5	0,02	0,5	1	[26,19,17]



5-8 7.Saiakeraren Grafikoa

5-16 7.Saiakeraren Emaitza

	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	7.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4682
Galeren gutxipena(%)	-	%8,9

Konfigurazio topologikoa optimoa da eta galeren gutxipena lortzen da. Grafikoan ikusten den moduan feromonak busen artean bi talde handitan banatzen dira. Feromona akumulazioak prozesua gidatzen du, hori dela eta grafikoak oso homogeneoa da eta bilaketa prozesua ez da ona. Ona ez den arren, 4. eta 5. saiakeretakoa baino hobea da. Ikus daitezenez penalizazioen balioa igotzen den heinean bilaketa prozesua txarragotzen da. Kasu guztietan soluzio optimoa lortzera heltzen bada ere, honek arazoak sor dezake algoritmoa sare handiagoetara aplikatzean.


5.2 2.AZPIMULTZOA

Azpinmultzo honetan λ -ren parametroak gradualki aldatuko dira beste hiru azpinmultzotan eta λ hauek oinarritzat hartuz, α eta β parametroen aldaketak aztertuko dira.

8.Saiakera:

5-17 8.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{\text{islanding}}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
8	3	30	0,05	0,05	0,05	1	1	0,02	0,5	1	[19,17,26]



5-9 8.Saiakeraren Grafikoa

5-18 8.Saiakeraren Emaitzak


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	8.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4682
Galeren gutxipena(%)	-	%8,9

Konfigurazio topologikoa optimoa da. Grafikoan ikusi daiteke feromonen akumulazioa bus denetan sakabanatuta dagoela, akumulazio handiena 13.ean emanik. Penalizazio balioak jaitsi direnean berriro berreskuratuta da bilaketa prozesuaren eraginkortasuna.

9.Saiakera:

5-19 9.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{\text{islanding}}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
9	3	30	0,05	0,05	0,05	5	5	0,02	0,5	1	[26,19,21]



5-10 9.Saiakeraren Grafikoa

5-20 9.Saiakeraren Emaitzak


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	9.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4959
Galeren gutxipena(%)	-	%3,52

Saiakera honetan ikusi daiteke konfigurazio topologikoa ez dela optimoa eta horrek galeren gutxipen portzentuarean (%)ren handitze bat dakar. Feromonen akumulazioen kasuan beste saiakera batzuetan ikusi dena gertatzen da busen artean bi talde handitan banatzen dira, bilaketa prozesua ez dela egokia eta horregatik soluzio optimoa ez dela topatzen ondoriozta dezakegu.

10.Saiakera:

5-21 10.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{\text{islanding}}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
10	3	30	0,05	0,05	0,05	3	5	0,02	0,5	1	[26,19,17]



5-11 10.Saiakeraren Grafikoa

5-22 10.Saiakeraren Emaitzak


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	10.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4682
Galeren gutxipena(%)	-	%8,9

Saiakera honetan konfigurazio topologikoa optimoa den arren, bilaketa kaskarra da. Honetaz gain ikusi daiteke feromonak busen artean bi multzo handitan banatzen direla.

11.Saiakera:

5-23 11.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{\text{islanding}}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
11	3	30	10	10	10	1	1	0,02	0,5	1	[19,17,26]



5-12 11.Saiakeraren Grafikoa

5-24 11.Saiakeraren Emaitzak


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	11.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4682
Galeren gutxipena(%)	-	%8,9

Ikusi daiteke konfigurazio topologikoa ona dela eta galerak txikitu egiten direla baina adierazgarria feromonen akumulazioan ematen den banaketa, feromonak bus guztietan zehar banatuta bait daude. Horrek bilaketa prozesua oso ona dela adierazten du, esplorazioa eta egokitasuna indartuta izan direlako.

12.Saiakera:

5-25 12.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{islanding}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
12	3	30	10	10	10	5	5	0,02	0,5	1	[26,19,17]



5-13 12.Saiakeraren Grafikoa

5-26 12.Saiakeraren Emaitzak


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	12.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4682
Galeren gutxipena(%)	-	%8,9

Konfigurazio topologikoa optimoa. Grafikan feromonen akumulazioa nahiko banatuta dago 25, 17 eta 19.en busak gehien dutenak izanik. Ikus daiteke α eta β -ren balioak aldatuz, λ -ren iguera konpentsatzen dela eta bilaketa eraginkor bat dagoela.

13.Saiakera:

5-27 13.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{islanding}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
13	3	30	10	10	10	3	5	0,02	0,5	1	[26,19,17]



5-14 13.Saiakeraren Grafikoa

5-28 13.Saiakeraren Emaitzak


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	13.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4790
Galeren gutxipena(%)	-	%6,8

Konfigurazio topologikoa optimoa da. Feromonen akumulazioa nahiko banatuta dago bus denen artean, baina ikusi daiteke iterazioak aurrera joan ahala 17 eta 19.busetan feromonen akumulazioa igo egiten dela. Esan bezala hori bilaketa prozesu on bat eman delako gertatzen da. Ikus daiteke nola $B > \alpha$, bilaketa prozesu eraginkor batera eramaten duen.

14.Saiakera:

5-29 14.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{islanding}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
14	3	30	4	7	1	1	1	0,02	0,5	1	[26,19,17]



5-15 14.Saiakeraren Grafikoa

5-30 14.Saiakeraren Emaitzak


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	14.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4682
Galeren gutxipena(%)	-	%8,9

Saiakera honetan konfigurazio topologiko optimoa da. Ordea, feromonaren akumulazioa oso homogeneoa da eta bilaketa prozesua ez da bereziki ona. Berritua ere, β eta α arteko erlazio berdina da eta ikus daiteke bilaketan eraginkortasuna galdu dela.

15.Saiakera:

5-31 15.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{islanding}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
15	3	30	4	7	1	5	5	0,02	0,5	1	[19,17,26]



5-16 15.Saiakeraren Grafikoa

5-32 15.Saiakeraren Emaitzak


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	15.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4682
Galeren gutxipena(%)	-	%8,9

Konfigurazioa topologikoa optimoa izaten jarraitzen du. Grafikoan ikusi daiteke feromonen balioa bi talde berdinetan banatzen dela busen artean. Beraz, berriro ere, nahiz eta α eta β -ren balioak aldatu, berain arteko erlazio aldatzen ez den heinean, bilaketa prozedura ez da hobetzen.

16.Saiakera:

5-33 16.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{islanding}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
16	3	30	4	7	1	3	5	0,02	0,5	1	[26,19,17]



5-17 16.Saiakeraren Grafikoa

5-34 16.Saiakeraren Emaitzak

	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	16.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4682
Galeren gutxipena(%)	-	%8,9

Saiakuntza honetan galerak txikitu egiten dira eta konfigurazio topologikoa optimoa da. Grafikoan ikusi daiteke feromonak bus denetan sakabanatzen direla akumulazio gehien lortzen duena 13.a izanik. Bilaketa prozesu eraginkorra dela ikus daiteke, berriro ere $B > \alpha$ dela ikus dezakegu. Ikus daitekeenez β eta α -ren arteko erlazioa, λ -ren balio aldaketak baino eragin handiagoa dutela. $B > \alpha$ denean egokitasunaren pisua, hots, esplorazioa, eragin handiagoa dauka esplotazioa (feromona pilaketa) baino. Hori garrantzi handia dauka soluzio egokiaren eraikuntzan.


5.3 3 .AZPIMULTZOA

Azpimultzo honetan 2.azpimultzoan erabili den oinarria erabiliko λ -ren kasuan. Beste hiru azpimultzo sortuko dira baina α eta β -ren balioak balio finko unitario bat izango dute eta aldatzen diren parametroak Q eta δ izanik.

17.Saiakera:

5-35 17.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{\text{islanding}}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
17	3	30	0,05	0,05	0,05	1	1	0,1	0,5	0,01	[26,19,21]



5-18 17.Saiakeraren Grafikoa

5-36 17.Saiakeraren Emaitzak.


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	17.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4959
Galeren gutxipena(%)	-	%3,52

Konfigurazio topologikoa ez da optimoa eta gutxipenak egon arren galerak nahiko altuak dira. Feromonen akumulazioa bus denetan berdina da eta grafikoan ikusi daiteke iterazioak aurrera joan ahala feromonen akumulazioa jaitsi egiten dela. Bilaketa prozesua eta akumulazio oso txarrak direla ikus daitezke irudian.

18.Saiakera:

5-37 18.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{istanding}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
18	3	30	0,05	0,05	0,05	1	1	0,9	0,5	2	[26,19,21]



5-19 18.Saiakeraren Grafikoa

5-38 18.Saiakeraren Emaitzak


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	18.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4959
Galeren gutxipena(%)	-	%3,52

Konfigurazioa topologikoa ez da optimoa eta ondorioz lortzen diren galeren gutxipenak txikiak dira. Grafikoan ikusi daiteke bus batzuetan feromona maila oso altua dela hasiera batetik eta iterazioak aurrera joan ahala aldaketa handi bat ikusi daiteke 14. eta 16. busen akumulazioetan. Penalizazioak nahiko txikiak izan arren, bilaketaren eraginkortasuna txarra dela esan daiteke β eta α -ren balioen berdintasunaren ondorioz. Gainera 14 eta 16.busetan ematen den bat-bateko feromona aldaketa δ eta Q balio altuen ondorioa izan daiteke.

19.Saiakera:

5-39 19.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{\text{islanding}}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
19	3	30	0,05	0,05	0,05	1	1	0,01	0,5	8	[19,17,26]



5-20 19.Saiakeraren Grafikoa

5-40 19.Saiakeraren Emaitzak


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	19.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4959
Galeren gutxipena(%)	-	%3,52

Galerak gutxipena nahiko txikia izan arren kasu honetan konfigurazio topologiko optimoa lortzen da. Grafikoan ikusi daiteke esplorazio eta esplotazio bideak nahiko orekatuak izan direla, hau da, busetan ematen den feromona akumulazioa orekatu dagoela. δ - ren balio oso baxu bat edukitzeak feromonen desagerpena atzeratzen du akumulazioa areagotuz eta Q-ren balio altuak feromonen abiadura handitzen du beraz busetan feromona kantitate handia akumulatzen denbora txiki batean eta ondorioz esan daiteke bilaketa prozesu optimo bat jarraitu dela.

20.Saiakera:

5-41 20.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{istanding}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
20	3	30	10	10	10	1	1	0,01	0,5	0,01	[26,19,17]



5-21 20.Saiakeraren Grafikoa

5-42 20.Saiakeraren Emaitzak


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	20.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4682
Galeren gutxipena(%)	-	% 8,9

Konfigurazio topologikoa optimoa da eta galerak txikitu egiten dira. Grafikoan ikusi daiteke feromonen akumulazioa txikitu egiten dela iterazioak aurrera joan ahala baietan bus denetan akumulazioa berdina da. Emaitza ona izan arren, bilaketa eta soluzio konstrukzio prozesua txarrak direla ikus daiteke.

21.Saiakera:

5-43 21.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{\text{istanding}}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
21	3	30	10	10	10	1	1	1	0,5	2	[26,19,17]



5-22 21.Saiakeraren Grafikoa

5-44 21.Saiakeraren Emaitzak

	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	21.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4682
Galeren gutxipena(%)	-	%8,9


Kasu honetan konfigurazio topologikoa optimoa da eta galeren gutxipen aipagarri bat ematen da, baina grafikoari erreparaturaz bilaketaren prozesua eta estrukturazioa txarra da. Grafikoan ikusi daiteke buzetan feromonen balioa konstantea dela lehenengo iteraziotik amaierararte hau δ -ren balioa unitarioa delako da.

δ -ak feromonen lurrunketa kontrolatzen du eta balio portzental bat da beraz saiakera honetan balio maximoa eman zaio parametro honi eta emaitza feromonen balioen aldaketa eza izan da.

22.Saiakera:

5-45 22.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{\text{islanding}}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
22	3	30	10	10	10	1	1	0,01	0,5	8	[26,19,17]



5-23 22.Saiakeraren Grafikoa

5-46 22.Saiakeraren Emaitzak


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	22.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4682
Galeren gutxipena(%)	-	%8,9

Konfigurazio topologiko optimoa eta galeren gutxipen on bat lortzen da saiakera honetan. Grafikoan ikusi daiteke esplorazio eta esplotazio bideak nahiko orekatuak izan direla, hau da, busetan ematen den feromona akumulazioa orekatua dagoela. δ -ren balio oso baxu bat edukitzeak feromonen desagerpena atzeratzen du akumulazioa areagotuz eta Q-ren balio altuak feromonen abiadura handitzen du beraz busetan feromona kantitate handia akumulatzen denbora txiki batean eta ondorioz esan daiteke bilaketa prozesu optimo bat jarraitu dela. Gainera δ eta Q parametroak berdinak dituen saiakerarekin alderatuz, penalizazio altuago batzuk izateak eragina izan du galeren gutxipen handiago bat lortu delako.

23.Saiakera:

5-47 23.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{istanding}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
23	3	30	4	7	1	1	1	0,01	0,5	0,01	[26,19,17]



5-24 23.Saiakeraren Grafikoa

5-48 23.Saiakeraren Emaitzak


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	23.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4682
Galeren gutxipena(%)	-	% 8,9

Konfigurazio topologikoa optimoa da eta galerak berdinak dira. Grafikoan ikusten da feromonen akumulazioa berdina dela bus guztietan baina iterazioak aurrera joan ahala feromonen akumulazioa txikitu egiten da. Beraz, bilaketa prozesua txarra da kasu honetan.

24.Saiakera:

5-49 24.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{islanding}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
24	3	30	4	7	1	1	1	0,9	0,5	2	[26,19,17]



5-25 24.Saiakeraren Grafikoa

5-50 24.Saiakeraren Emaitzak


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	24.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4682
Galeren gutxipena(%)	-	% 8,9

Galeren gutxipen on bat eta konfigurazio topologiko optimo bat lortu da saiakera honetan. Grafikoari erreparatuz bilaketa prozesua nahiko txarra dela ikusten da feromonen akumulazioan aldaketa lehen iterazioetan bakarrik ikusten delako hau, δ -ren balio altu bat erabili delako eman da.

25.Saiakera:

5-51 25.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{islanding}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
25	3	30	4	7	1	1	1	0,01	0,5	8	[19,17,26]



5-26 25.Saiakeraren Grafikoa

5-52 25.Saiakeraren Emaitzak

	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4682
Galeren gutxipena(%)	-	% 8,9

Saiakera honetan konfigurazio topologiko optimoa bat eta galeren gutxipen balio on bat lortu da. Grafikoan ikusi daiteke esplorazio eta esplotazio bideak ezberdinak izan direla, baina penalizazioen balio ezberdinak izateak feromona akumulazioen aldaketak bus batzuetara mugatu dituen arren, bilaketa prozesua ona da. δ -ren balio oso baxu bat edukitzeak feromonen desagerpena atzeratzen du akumulazioa areagotuz eta Q-ren balio altuak feromonen abiadura handitzen du beraz busetan feromona kantitate handia akumulatzen denbora txiki batean eta ondorioz esan daiteke bilaketa prozesu optimo bat jarraitu dela.


5.4 4.AZPIMULTZOA

Azpimultzo honetan λ , α eta β -ren balioak aurreko azpimultzoan erabilitako berdinak izango dira. Q eta δ -ren balioak konstanteak izango dira 5 eta 0,5 balioak izanik eta τ_0 balioa gradualki aldatzen joango da.

26.Saiakera:

5-53 26.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{\text{islanding}}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
26	3	30	0,05	0,05	0,05	1	1	0,5	0,01	5	[29,21,26]



5-27 26.Saiakeraren Grafikoa

5-54 26.Saiakeraren Emaitzak


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	26.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4959
Galeren gutxipena(%)	-	%3,52

Konfigurazio topologikoa ez da optimoa eta galeren gutxipena oso txikia da. Grafikoan ikusi daiteke lehenengo iterazioetan bus batzuetan feromona akumulazio aldaketa handiak ematen direla eta gero akumulazioak konstante mantentzen direla. τ_0 -ren balio baxuaren eragina ikusi daiteke grafikoaren hasierako balio baxuetan. Bilaketa prozesu nahiko kaskarra da .

27.Saiakera:

5-55 27.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{\text{islanding}}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
27	3	30	0,05	0,05	0,05	1	1	0,5	5	5	[26,19,21]



5-28 27.Saiakeraren Grafikoa

5-56 27.Saiakeraren Emaitzak


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	27.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4959
Galeren gutxipena(%)	-	%3,52

Konfigurazio topologikoa ona da eta galeren gutxipenaren balio nahiko txarra da. Grafikoan ikusi daiteke hasieran feromonen balioa bus batzuetan nahiko altua dela τ_0 -ren balioaren eraginez. Berriro ere hasierako iterazioetan ematen dira feromonen akumulazioen aldaketak gero balioak konstante mantenduz. Aipagarria da ere 14.busean ematen den akumulazioa aldaketa hain iterazio gutxitan. Bilaketa prozesua nahiko kaskarra da feromona bus gutxitan akumulatzen delako eta iterazio gutxi batzuen ondorioz feromona kantitatea konstante mantentzen delako.

28.Saiakera:

5-57 28.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{\text{islanding}}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
28	3	30	0,05	0,05	0,05	1	1	0,5	20	5	[26,19,17]



5-29 28.Saiakeraren Grafikoa

5-58 28.Saiakeraren Emaitzak


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	28.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4682
Galeren gutxipena(%)	-	% 8,9

Konfigurazio topologiko optimoa lortu da eta galeren gutxipenaren balioa ona da. Grafikoari erreparatuz τ_0 balio oso altuaren eragina ikusi daiteke hasieran bus batzuetan feromona akumulazio oso altua baita. Iterazioak aurrera joan ahala bus gehienetan feromona akumulazioa desagertu egiten da 26,17 eta 19.busetan izan ezik.

29.Saiakera:

5-59 29.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{islanding}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
29	3	30	10	10	10	1	1	0,5	0,01	5	[19,21,26]



5-30 29.Saiakeraren Grafikoa

5-60 29.Saiakeraren Emaitzak


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	29.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4959
Galeren gutxipena(%)	-	%3,52

Konfigurazio topologikoa ez da optimoa eta galeren gutxipenaren balioa baxua da. Feromonen akumulazioak busetan homogeneoki banatzen dira amaierako iterazioetan aldaketak aurkituz. Hau penalizazioaren balioaren aldaketagatik ematen da. Bilaketa prozesua ez da ona, esplorazio eta esplotazio aukerak nuluak direlako.

30.Saiakera:

5-61 30.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{\text{islanding}}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
30	3	30	10	10	10	1	1	0,5	5	5	[16,19,27]



5-31 30.Saiakeraren Grafikoa

5-62 30.Saiakeraren Emaitzak


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	30.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,5078
Galeren gutxipena(%)	-	%1,21

Konfigurazio topologikoa ez da optimoa eta galeren gutxipenaren balioak oso txarrak dira. τ_0 -ren balioaren eragina ikusi daiteke iterazioen hasieran baina iterazioak aurrera joan ez da aldaketarik somatzen feromonen akumulazioetan. Bilaketa prozesua txarra da feromonen akumulazioen balioak konstanteak eta bus berdinetan mantentzen direlako ia iterazio guztietan hau α eta β -ren balioak berdinak direlako eta penalizazio balio altuagoen eraginagatik izan daiteke.

31.Saiakera:

5-63 31.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{islanding}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
31	3	30	10	10	10	1	1	0,5	20	5	[26,19,17]



5-32 31.Saiakeraren Grafikoa

5-64 31.Saiakeraren Emaitzak


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	31.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4682
Galeren gutxipena(%)	-	% 8,9

Konfigurazio topologiko optimoa eta galeren gutxipenaren balio nahiko ona. τ_0 -ren balio altuaren eragina ikusi daiteke ikusi daiteke grafikoaren hasieran, honetaz gain iterazioak aurrera joan ahala bus ia guztietan feromona akumulazioaren aldaketa ematen da batzuk konstante mantendu arren. Bilaketa prozesua perfektua izan ez arren kasu honetan ontzat eman daiteke.

32.Saiakera:

5-65 32.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{islanding}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
32	3	30	4	7	1	1	1	0,5	0,01	5	[19,24,26]



5-33 32.Saiakeraren Grafikoa

5-66 32.Saiakeraren Emaitzak


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	32.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,5146
Galeren gutxipena(%)	-	% -0,1128

Saiakera honetan konfigurazio topologikoa ez da optimoa eta gainera galerak handitu egiten dira erreferentziatzen hartu den balioarekin konparatuz. Hasierako iterazioetan feromona aldaketa handi bat ikusi daiteke bus ezberdinetan eta iterazioak aurrera joan ahala balioak konstante mantentzen dira. Hasierako aldaketa handi hau penalizazioen balioa Q-ren balioarekin alderatuz baxuak izan daitezkeelako izan daiteke. Dena den bilaketa prozesua nahiko eskasa da eta gainera konfigurazio topologikoan eta galeren gutxipenean lortutako emaitzak oso txarrak dira.

33.Saiakera:

5-67 33.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{\text{islanding}}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
33	3	30	4	7	1	1	1	0,5	5	5	[26,19,21]



5-34 33.Saiakeraren Grafikoa

5-68 33.Saiakeraren Eraitzak


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	33.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4959
Galeren gutxipena(%)	-	%3,52

Konfigurazio topologikoa ez da optimoa eta galeren gutxipenaren balioak txikiak dira. Grafikoari erreparatzen badigu ikusi daiteke aurreneko iterazioetan bus batzuen feromona akumulazio balioetan aldaketa dagoela baina aurrera joan ahala balioak konstante mantentzen dira. Bilaketa prozesua ez da ona feromona bus gutxitan akumulatzen delako esplorazio bideari uko eginez hau penalizazioen balioak α eta β -rekin alderatuz handiak izan daitezkeelako da.

34.Saiakera:

5-69 34.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{islanding}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
34	3	30	4	7	1	1	1	0,5	20	5	[26,19,17]



5-35 34.Saiakeraren Grafikoa

5-70 34.Saiakeraren Emaidzak

	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	34.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,4790
Galeren gutxipena(%)	-	%6,81

Konfigurazio topologikoa optimoa da eta galeren balioak ez dira txarrak. Grafikoan ikusi daiteke feromonen akumulazioen balioak bi baliotan banatzen direla busetan eta iterazioak aurrera joan ahala ibilbide berdina egiten dute. Hasieran akumulazio altu bat izateak τ_0 balio altuaren eragina da. Emaidza ona izan arren, bilaketa eta soluzio konstrukzio prozesua txarrak direla ikus daiteke.


5.5 5 .AZPIMULTZOA

Azpimultzo hau 30 ziklo dituen azkena da eta parametroen balioak aleatorioak izan dira ez da aurreko azpimultzoetan jarraitu den patroia erabili.

35.Saiakera:

5-71 35.Saiakeraren Parametrizazioa

Saiakera	Inurri kopurua	Zikloak	λ_v	λ_i	$\lambda_{\text{islanding}}$	α	β	δ	τ_0	Q	Konf. topologikoa
35	3	30	50	50	50	5	5	0,9	20	8	[26,19,17]



5-36 35.Saiakeraren Grafikoa

5-72 35.Saiakeraren Emaizak


	Ohiko konfigurazioa [Su-2005]	35.Saiakera
Galerak (MW)	0,51402	0,5134
Galeren gutxipena(%)	-	%0,12

Kasu honetan, konfigurazio topologikoa optimoa da baina lortutako galeren gutxipenaren balioa oso txarra. δ eta Q balio ain altuak edukitzeak feromonen akumulazio eta lurrunketa azkarra ahalbideratzen du , grafikoan ikusten den balio konstanteak lortuz eta bilaketa prozesua txarra egine

36.Saiakera:

5-73 36.Saiakeraren Parametrizazioa

